

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Untxien Waterloo

TILSIT (PRUSIA), 1807. Alexander I.a tsarrak eta Napoleon Bonapartek Errusia eta Frantziaren arteko gatazka etetea adostu zuten. Tilsiteko Itunaren bidez, etsaien aurrean elkarri laguntzeko konpromisoa hartu zuten, eta gainera Europako pastela bien artean banatzeko erabili zuten. Berri ona eta ospakizunerako aitzakia ederra zen Bonaparterentzat. Hala, Frantziako Armadako Estatu Nagusiko buru eta Napoleonen lagun min Louis Alexandre Berthierrek enperadorearentzat ehiza egun berezia presatzea erabaki zuen.

Napoleoni koipea eman asmoz, Berthierrek ehunka untxi erosi zituen ehiza eremuan askatzeko (Francori, arrantzara edo ehizara joaten zenean, amuarrainak, eperrak eta oreinak ipintzen zizkieten bezalaxe). Ehizaki gehien botako zituena izan zedin, enperadorea aurreneko lerroan jarri zen. Baina, orduan, gauzak ez ziren espero bezala gertatu. Berthierrek erositako untxiak baserrikoak ziren, etxekotuak zeuden, gizakiek jaten eman ziezaieten ohituak. Gainera,

untxiak ehiza eremura garraiatzerakoan, inori ez zitzaion bururatu animaliak elikatzea. Askatu zituztenean, tripa zorria ederki egina zuten eta, hara eta hona ihesi irten beharrean, hurbilen zuten gizakiarengana ziztu bizian abiatu ziren, janari eske. Eta hantxe, lehen lerroan, hiru urte lehenago bere burua enperadore izendatu zuen gizona zegoen, historiako estrategia militarrik bikainenetakoa, hamarkada eskasean Europa mendebaldea eta erdialdea konkistatuko zituena, ordura arte gudu-zelaian porrotik izan gabea.

Segizio guztia untxi gosetien eraso eragozten saiatu zen, baina alferrik. Napoleon zalgurdian igo zen eta “gudu-zelai” hartatik ihes egin zuen.

Handik zazpi urtera Napoleon mendean hartu zuten Waterlooko gudian. Untxien umiliazioak ez zuen porrot haren ondorio nabarmenik eta oihartzunik izan. Baina, ziurrenik, Napoleonen duintasuna Santa Helena moduko batera erbesteratu zen aldi baterako.



JACQUES LOUIS DAVID

Napoleon Bonaparte bere garaioko estrategia militar onena eta agintari boteretsuena zen, baina errusiarrekin Tilsiteko Ituna sinatu eta handik gutxira, untxi saldo batek izutu zuen enperadorea.

Arrastoak

Zorriek duela
170.000 urte
jantzen ginela
esan digute



VINCENT S. SMITH

MARK STONEKING ikerlariak, 2003an, ondorioztatu zuen gizakiak duela 100.000 urte hasi zirela jantziak erabiltzen, toki hotzagoetara lekualdatu zirenean. Floridako Historia Naturaleko Museoko David Reedek, ordea, jakinarazi berri du 70.000 urte lehenago hasi ginela gorputza jantziez babesten. Reedek zorrien ADN sekuentziak aztertu ditu, jantziak zozortzeko giza-buruetan bizi direnetatik genetikoki bereizten noiz hasi ziren jakiteko. Eta emaitza 170.000 urte izan da. Beraz, gizakiak ez ziren jantzen hasi bizileku hotzagoetara iristean; lehendik ere jantzi egin ziren eta, gorputza babesteko ohitura hartuta, Afrika utzi eta lurralde hotzetera abiatu ziren. Reedek argitaratu berri duen lana <http://ttiki.com/28465> helbidetan dago eskuragarri.